


# Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2003ko ekainaren 13a / 633. zenbakia



**70** EKO

**HAMARKADAKO II. JAIA**

Arrasateko Culture taldeak eta gaztetxeak  
jai berezia antolatu dute bihar, zapatua

ORAIN ETA HEMEN: UDALBATZARRAREN EGITURAKETA/6 • KIROLA: PILOTA PARTIDUAK ZAPATUAN/10

AZALA: ZUHAITZ INDA

**PROFESIONAL LIBERALEN GIDA/19**



## Zuzen-zuzenean alkatea izendatzeko bilkura Arrasate Irratian

*Zapatuan, 11:30ean  
saio berezia eta  
12:00etan zuzenean  
udaletxetik*

**FM107.7**  **ARRASATE  
IRRATIA**




## UDALBATZA BERRIAK DEBAGOIENEAN Ekainak 14an zuzenean.

Ekainak 14, zapatua  
12:00etatik - 14:00etara

Aurkezlea:  
**Gorka Etxabe**

**Goitb**  
Goiena Telebista

**Ikusiko  
duzu!**





## KALEINKESTA/ Realak ligie irebazten badau, zela ospatuko dozu?




**IÑIGO VÁZQUEZ**  
Ikaslie



**RAMON AMAZORRAIN**  
Langillie



**HAIZEA GAZTAÑAGA**  
Ikaslie



**ROBERTO MORENO**  
Langillie



**JON ZUBIAGA**  
Langillie



**EDURNE LANDAJO**  
Ikaslie

Kalera urten biherko dot lagunekin eta gainera jarraitzailliekien ligako txapeldunak gara ospaketa. Partidu bi gertatzen dira, eta ez dot uste Realak kale egingo dauenik.

Ez dot uste ospakizun berezirik egingo dotenik, ez dot afari berezirik egingo, betiko martxan ibilliko naz. Gurago dot Realak irabaztie, baiñe ez naz oso futbolzalie.

Neu Athleticzalie naz, eta ez dakit zela ospatuko doten. (Barriek). Hala eta be, nahiz eta Athleticzalie izen, asko poztuko naz Realak ligie irabazten badau. Akaso, parrandie egingo dogu.

Realak ligie irebazten badau Donostiara juen biherko gare, ospaketan. Egixe da ez badau irebazten desilusiño haundixe hartuko dogule, baiñe ez da horrelakorik pasauko.

Irebazi edo galdu aste bukerie izengo da, eta betikue egingo dot. Futbolana larregikue da, Realak irebazten badau, seguru fabrikek igerriko dauela, jentiek gehixago produziduko dau-eta.

Ez dot ezer berezirik egingo, futbola ez jat-eta bat be gustetan. Futbolak ez dust jaten emuten; hortan, ez dauket ospakizunik egitteko motiborik. Jentie zoratute dau futbolakin.

## TXALOAKETATXISTUAK



**TXISTUAK OINEZKOAK ERRESPETATU** Sail honetan sarritan aipatu dugu autoa dutenak kexu direla aparkatzeko lekurik ez dauketalako. Baina horien aurrean oinezkoek ere arazo handiak izaten dituzte. Argazki hori atera genuenean, esaterako, oinezkoak ezin ziren espaloitik pasatu eta errepidera edo lorategira irten beharra zuten. Gidari batzuen errespetu faltaz kexu dira oinezko asko.

## ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /7

KIROLAK /9

KULTURA /12

### Aramaio erreka

Aramaio erreka garbitzeko kolektoreak ipiniko dituzte denbora gutxi barru.

### AT Celaya, txapeldun

Zaldibarko finala jokatu zuten joan den zapatuan, eta AT Celayak 9-5 irabazi zion Etixerat-i.

### Arrasate Musikal

Arrasate Musikalek 2003-2005eko Plan Estrategikoa aurkeztu berri du. LKSren laguntzarekin egin du.

## ASTEKODATUA

# 441.563

### EURO EMAN DITU UDALEKO EUSKARA BATZORDEAK

Arrasateko Udaleko Euskara batzordeak 441.563 euroko dirulaguntza eman die euskararekin lotutako bederatzik elkarerik: besteak beste, Goiena, Putz, AED, Euskalan, Argia eta UEUri.

## BESTEKEESANA

**“Korporazio horrek ez du zilegitasunik arrasatear guztien izenean hitz egiteko edo erabakitzeke.”**

**Dena den, kontua da egoera hau konpontzeko interesatuta gaudenok zer egin dezakegun, hartarako (...). Nik uste dut aukera historikoa galdu duela EAJ-EA koalizioak, hauteskunde hauetan parte hartzeari uko egin ez eta estatu espainolari planto egin ez diolako. Orain, gauzak bere onera eramateko, udal hauteskundeak baldintza demokratikoetan ospatu beharra dago, baina Autonomi Estatuak ez du ematen hartarako aukerarik. Benetan esan daiteke hilda dagoela; beste edozein konponbide, behin behinekoa bakarrik izan daiteke”**

**XABIER ZUBIZARRETA**  
‘EL DIARIO VASCO’/03-06-07

## HERRITARRENBERBAK/ Ander Elortondo



*Astotik, mando euskaldun libreria*

**A**stoaren eboluzioak mandoa ekarri du. Hain ezaguna egin zen edonkey astoa zaharkituta geratzean, Software libreak emule bilakatu zuen, honela P2P (peer to peer) munduan pauso garrantzitsu bat emanez. Badira KaZaA bezalako beste tresna famatu batzuk, baina mandoa da sarean maitatuena. Ez didazula ulertzen zertaz ari naizen? Software aske munduan sortutako tresna batez ari naiz, P2P deritzote eta ideia oso sinplea da: nik banatzeko daukadana har dezakezu eta zuk eskaintzen didazuna har dezaket. Ez dago inolako merkataritzarik, dena doan. Eta zer da elkar trukatu daitekeena? DENA. Informatikako zentzuan noski. Edozein fitxategi trukatu daitekeenez, musika, bideoak, programak, irudiak... dena. Mandoak besteen aldean abantaila bat dauka lecher direnak (ezer eman gabe hartu besterik egin nahi ez dutenak)

ezagutzeko gai da eta ‘baztertu’ egiten ditu. Horrez gain, orain Euskaldunok zorionekoak gara, mandoak euskaraz ikasi baitu. AEDk (hegoaxe) antolatutako Ziburuko auzolandegietan lagun izan genuen Axier izan da mandoaren euskara irakaslea. Mandoaren euskal klon bat eskuratzeko konektatu [www.emuleplus.tk](http://www.emuleplus.tk) helbidera. Eskerrik asko, Axier!!! Multinazional handien atzaparretatik at dagoen trukate honek eta software libreak ‘borroka’ gogorrek dakartza. Axierrek dioen lez, “gaur egun kapitalismoaren kontrako borrokan min handien sortzen ari den mugimendua software askearen mundutik eratorritako ideiak eta tresnak” direla uste da. Napster, aurreko trukatzeko programa, musika multinazionalak itxi zuten. Microsoft hasi da mugitzen eta SCO konpainiari UNIX lizentzia erosi dio, Linux eta Mac OS X kaltetzeko. Borroka hasi besterik ez da egin...

**“Multinazional handien atzaparretatik at dagoen trukate honek eta software libreak ‘borroka’ gogorrek dakartza”**

# Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 71 25 11  
Faxa: 943 71 23 89  
Posta-e: [arrasatepress@goiena.com](mailto:arrasatepress@goiena.com)

**ZUZENDARIA**  
Iker Barandiaran  
**ERREDAKZIOA**  
Ubane Madera  
Xabier Urzelai  
**MAKETAZIOA**  
Alex Azkarate  
**ZUZENTZAILEA**  
Sergio Azkarate

**PUBLIZITATEA**  
Arantzazu Lagunilla  
Izaskun Bolinaga  
Natali Martinez  
Imanol Elortza  
**ADMINISTRAZIOA**  
Agurtzane Gaiñarain  
Ane Bereibar  
Iratxe Bengoa

**BANAKETA**  
Julen Aranguren  
**LEGE-GORDAILUA**  
SS-1124/88  
**ISSN**  
0214-4654  
**TIRADA**  
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Aramaioko  
Udala



**GUARDIAKOFARMAZIAK**

- EGUBAKOITZA, 13**  
Español. Araba etorb. 17 ..... 943 79 18 65
- ZAPATUA, 14**  
Azkoaga. Ferrerías 1 ..... 943 79 15 15
- DOMEKA, 15**  
Azkoaga. Iturriotz ..... 943 79 79 99
- ASTELEHENA, 16**  
Corcuera. M. Aranbarri 1..... 943 79 22 26
- MARTITZENA, 17**  
Irizar. Erguin 11..... 943 79 12 39
- EGUAZTENA, 18**  
Amezua. Santa Marina 32 ..... 943 79 09 74
- EGUENA, 19**  
Zabala. Zarugalde 42..... 943 77 16 30
- EGUBAKOITZA, 20**  
Ruiz. Maala 31 ..... 943 79 14 09

**TELEFONOJAKINGARRIAK**

- ERITXEAK**  
Arrasateko Eskualde Ospitalea. 943 03 53 00  
Iguatorialdea. .... 943 71 26 91  
Santa Agedako Ospitalea:  
Gizonak ..... 943 79 39 00  
Emakumeak ..... 943 79 44 11  
Buru osasunerako etxea ..... 943 79 90 11

- LARRIALDIK**  
SOS Deiak ..... 112  
Gurutze Gorria. .... 943 76 55 76  
DYA ..... 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**  
Guardiako medikua ..... 943 46 11 11  
Astelehenetik  
egubakoitzera ..... 17:00etatik 08:30era  
Zapatuetan ..... 14:00etatik 08:30era  
Asteburuetan eta jaiegunetan. . . egun osoa

- Arrasate**  
Astelehenetik  
egubakoitzera ..... 08:00etatik 17:00etara  
Zapatuetan. .... 09:00etatik 14:00etara  
• Txanda hartzeko:  
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50  
• Espezialitateak ..... 943 03 53 11  
• Ikuskatzailea. .... 943 03 52 52  
• Kanpoko kontsultak ..... 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**  
Gipuzkoako Anbulantziak ..... 943 45 87 44

- ERTZAINZA**  
Arrasate ..... 943 79 71 99

- SUHILZAILAK**  
Udal taldea ..... 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaileburua. .... 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde Parkea ..... 088

- MATXURAK**  
Urak (Udal Zerbitzua) ..... 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero) ..... 943 12 01 62  
Gasa. .... 900 40 05 23  
..... 943 79 78 44

- GARRIAK**  
Taxiak ..... 943 79 12 22  
PESA. .... 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXAK**  
Iturbide egoitza ..... 943 79 72 11  
Abaroa erretiratuen egoitza ... 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**  
Monterron ..... 943 77 01 05

**MEZAK**

- |   |  |
|---|--|
| <b>San Joan parrokia</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)<br>Domeka<br>09:00 (gaztelaniaz)<br>11:00 meza nagusia (euskaraz)<br>12:30 (elebiduna)   | <b>San Andres eliza</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)<br>Domeka<br>10:00 (elebiduna)<br>11:00 (euskaraz)<br>12:00 (gaztelaniaz)<br>13:00 (gaztelaniaz) |
| <b>San Frantzisko eliza</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)<br>Domeka<br>09:00 (euskaraz)<br>10:00 (gaztelaniaz)<br>11:00 meza nagusia (euskaraz)<br>12:30 (gaztelaniaz)<br>19:00 (gaztelaniaz) | <b>Santa Teresa eliza</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)<br>Domeka<br>11:00 San Isidron (euskaraz)<br>12:00 (gaztelaniaz)                               |
| <b>Uribarri parrokia</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)<br>Domeka<br>11:30 (euskaraz)<br>12:30 (gaztelaniaz)   | <b>Santa Marinako eliza</b><br>Jaiegun bezpera eta zapatua<br>19:00 (gaztelaniaz)<br>Domeka<br>12:00 (gaztelaniaz)                                       |

**OHARRAK**

**BIZKARREKO GAITZAK**  
Ekainaren 17an, martitzenean, Nagusilan elkarteak berbaldia antolatu du Abaroa elkartearen. Berbaldiaren leloa *Bizkarreko gaitzak* izango da eta Marmier doktoreak egingo du. 18:30ean izango da.

**AZOKAKO SALTOKIAK**  
Azokan hutsik dauden saltokiak hartzeko eskaintzak aurkezteko epea erabakita dago: datorren uztailaren 11 baino lehen.

**KAMISETA TINDAKETA**  
Ekainaren 19an, eguenean, Txatxilipurdik Eguzkilaru egunerako kamiseta tindaketa egingo du gazte txokoetan eta ludoteketan. Kamiseta zuria eraman behar da.

**EGUZKILARU EGUNA**  
Eguzkilaru egunean Txatxilipurdik ikuskizuna egingo du. Parte hartu gura duten umeek goizean entsegua izango dute Zaldibarren.

**DRAGOI JANA**  
Jendea behar da dragoi-jana prestatzeko. Izena eman AEDn.

**EGUENETAKO ZINEKLUBA**  
Ekainaren 19an, eguenean, *Amen* filma emango dute Amaia Udal Antzokian, 21:30ean.

**AEDrenAGENDA**

**'EGUNKARIA'-REN ALDE**  
Bihar, zapatua, *Egunkaria*-ren aldeko ekitaldia egingo dute Donostiako belodromoan. *Egunkaria*-ren aldeko herri batzordeak autobusa antolatu du. Autobusa 16:00etan irtengo da Gari-baitik eta 23:00etan irtengo da bueltan Donostiatik. Autobuserako txartelak eta ekitaldirako sarrerak salgai daude AEDn eta Hire liburu dendan.


**URBANOENORDUTEGIA**

- Gorostizatik Eroskira**  
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.  
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**  
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.  
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**ORAINDELA 10URTEARRASATEN**

**Auzoetan 20 milioi pezeta inbertitu zituzten**

Udaleko Auzo batzordeak 20,7 milioi pezeta onartu zituen auzoetan inbertitzeko: Altamirako atzeko aldea konpontzeko, Erguingo eskailerak konpontzeko, Musakolako Sailuente plaza berritzeko, Santa Marinako espaloi eta eskailerak hobetzeko, eta beste hainbat gauzatarako.



**BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*"Mantxua"*

Besobakarra, besamotza.  
—Mantxua zan san Antonioko gasolinerua.




**HAUGIROA!**

<b>MINIMOA</b> Astelehena, 9	<b>34 °C</b>
<b>MAXIMOA</b> Eguena, 5	<b>14 °C</b>
<b>ASTEKO EURIA (l/m²)</b>	<b>6,3 L</b>

	Max.	Min.	Euria
Eguaztana, 4	26 °C	16 °C	6,1 l/m²
Eguena, 5	19 °C	14 °C	— l/m²
Egubakoitza, 6	28 °C	16 °C	— l/m²
Zapatua, 7	32 °C	14 °C	0,2 l/m²
Domeka, 8	19 °C	17 °C	— l/m²
Astelehena, 9	34 °C	16 °C	— l/m²
Martitzena, 10	33 °C	19 °C	— l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak

**ARRASATE IRRATIA FM 107.7**



**Alkate izendapena zuzenean irratiz**

Bihar, zapatua, alkatea izendatzeko osoko bilkura egingo dute udaletxean eta Arrasate Irratiak bilkura hori zuzen-zuzenean eskainiko dizue. Goizean udaletxean egongo gara, eta han gertatzen denaren berri emango dizuegu. Saioa 11:30ean hasiko dugu, eta 12:00etan udaletxearekin bat egingo dugu osoko bilkura eskaintzeko. Behin bilkura bukatuta, alkate berriarekin egingo dugu berba, baita udalbatzarrean izango diren zinegotzi batzuekin ere.

**Astelehenean, Reala hizpide nagusi**

Astelehen goizean Reala izango da hizpide nagusi Arrasate Irratian. Hainbat izango dira domekan Vigon izango diren arrasatearrak, eta horietako batzuekin bat egingo dugu 09:30ak aldera. Martitzenean, berriz, modaren gaineke tarteari agur esango diogu. Astero solaskide izan dugu Sergio Hernando, eta martitzenean agur esango diogu. Agur, baina laster arte. Beste tarte batzuei ere laster arte esan beharko diegu; esate baterako, baserriaren txokoari.



**ASTEKO PROGRAMAZIOA**

- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**  
09:00 Albistegia  
09:30 Igo autobusera  
10:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
10:06 Igo Autobusera.  
11:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
11:20 Arrasate Irratiko albistegia.  
11:30 Egurdioko hamabiak arte: efermerideak, zozketak, zorion agurrak...  
12:00 Euskadi Irratiko albistegia  
12:06 Musika berriaren tarteak.  
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.  
19:00-21:00-23:00 Albistegi laburra
- ASTELEHENA**  
20:00 **MIR:** Gaizka Vitoria eta Iban Idigoras.
- MARTITZENA**  
20:00 **Txortxorrien:** Mikel Aranburu eta Jokin Etxebarria.
- EGUBAKOITZA**  
19:00 **Planing Prest:** Deiane Arrieta
- ZAPATUA**  
09:00 **Asteko elkarrizketak**  
11:30 **Alkatearen izendapena zuzenean** udaletxetik.
- DOMEKA**  
11:00 **Asteko elkarrizketak**



## ASTEABIHITZETAN

### Arrasateko gaztetxe berria inauguratuta

Joan den zapatuan ireki zituzten gaztetxe berriko ateak. Inaugurazio ekitaldia 22:00etan hasi zen. Dantzariak izan ziren ekitaldi hasieran, eta gero, txalaparta doinuek bete zuten gaztetxea. Segidan, GOITBk utzitako irudiekin lehengo ospitale zaharreko gaztetxea gogora ekarri gura izan zuten gaztetxeok. Hamabost minutuko dokumentalaz gozatzeko aukera izan zuten gaztetxera hurreratu zirenek.

Gero, gaztetxeok kide batek gonbidapena egin zion Arrasateko gazteriari: "Gaztetxeok ateak irekita daude gazte sentitzen den edonorendako". Ekitaldia amaitzeko kontzertua egon zen: Spank<sup>2</sup> eta Los Chicos Boom talde mondragoetarrek estreinatu zuten gaztetxeok taula gaina.

### Alkoholiko Anonimoen ate ireki jardunaldia

Alkoholiko Anonimoen eguna zela-eta, ateak zabaltzeko eguna izan zuten martitzenean. Egun hori 1935ean ospatu zuten lehenengoz, eta ordutik hona 68 urte pasatu dira. Alkoholiko Anonimoetan daudenean diotenez, errespetua oinarritzeko gauzetako bat da, eta gogorra bada ere, esperientzia positiboa da. Martitzenean, 20:00etatik irekita egon ziren Arrasateko Alkoholiko Anonimoen ateak. Hain zuzen, martitzenero elkartzen dira ordu horretan. Arrasate pasealekuko hirugarren zenbakian dago euren egoitza.

### Igor Gordobil, UDAko entrenatzaile

Igor Gordobil mondragoetarra izango da datorren denboraldian UDA futbol taldeko entrenatzailea. Orain arte Bittor Muxika zebilen entrenatzaile lanetan. Horrenbestez, entrenatzaile gaztea izango du UDAk. Igorrek 32 urte ditu, eta ondo ezagutzen du Ibarra futbol zelaia; izan ere, lau urtez UDAko jokalaria izan zen, baina lehenago Mondrako elastikoa jantzi zuen.



### Hazia erein zutenei omenaldia

Espainiako gerran fusilatutako debagoiendarrei omenaldia egin zieten joan den domekan. Garai hartan eraildako eta desagertutako debagoiendar guztien izenekin monolitoa jarri zuten Laubide plazan. Omenaldi hunkigarria izan zen, eta ibarreko bederatzi udalek hartu zuten parte.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

## Asteburu berezia


Asteburu hau ez da oso ohikoa izango. Gauza berezi askotxo daude. Bihar, zapatua, ibarreko udalbatzar guztiak egituratuko dituzte. Horien artean, Arrasatekoa, noski. Herri plataformaren legez kanporatzearen ondorioz, seguruenik izango da zelanbaitoko eztabaida eta ika-mika, herritar asko ez dira-eta konforme egongo.

Bestetik, bihar arratsaldean *Egunkaria*-ren aldeko jai handia egingo dute Donostiako belodromoan. Egunkari berria, *Berria*, aurkeztuko dute, eta gero kontzertua egongo da. Arrasateko autobusa antolatu dute, baina baliteke hau irakurri orduko beteta egotea. Euskalgintza lan handia egiten ari da, eta zer esanik ez, *Egunkaria*-ko

langileek. Itxi zutenetik ez dute atsedetik hartu, protesta egiten eta *Egunero* egiten. Gainontzekook babes eman behar diogu eta aurrera egiten lagundu.

Bestalde, bihar, 70eko hamarkadako jai egingo dute. Iraganeko musika ona entzuteko aukera egongo da eta giroa ona izango da. Jaira moztortuta joatea eskatu dute. Beraz, hain gazte ez direnek gaztetxe berria ezagutzeko aukera erraz izango dute.

## ASTEKO IRUDIA



UBANE MADERA

### EUSKAL OHITURETAN OINARRITUTAKO KARROZA DANBORRADAN

Zelako karroza egin ezin jakinda ibili dira aurten Crisanto Margusino eta Jesus Mari Egidazu, baina azkenean buruko argitxoa piztu eta hara zein gauza txukuna egin duten gure lagun biek aurtengo Sanjuanetarako. Hain zuzen, gurdia eta idiak umeendako danborradarako dira. Gero, nagusien danborrada-

rako idiek tiratzeko harria (2.500 kilo) eta SUDCen ikurra (argizatuta) gehituko dizkiote karrozari. Eta ezin utzi aipatu barik karrozaren alde bietan ageri diren koloreak: Realak bizi dituen une goxoak gogoran, Athletic ahaztu barik eta Mondra bihotzean. Hiru taldeak gogoratu dituzte modu horretan. /U.M.



Pando  
Errotuloak

Gipuzkoa, etorbidea 6  
(Legarre Pabiloia)

Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Tbilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Señalizazioak

Lonak

Erliebeldun hizkiak



Gambrinus  
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna, 40-42  
Tel.: 943 79 53 32

ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko  
hodiak  
beirina eta kristalak  
osagaiak

Olarte kalea, 47 beheka Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25





Eguaztenean, hilak 11, osoko bilkura egin zuen udalbatzarrak, azkeneko akta onartzeko.

POLITIKA/ Alkate berria izendatzea

## Bihar Arrasateko alkate berria izendatuko dute

U.M.

**Euskal Herriko herri guztietan moduan, Arrasaten ere bihar, zapatua, 12:00etan, datozen lau urteotarako alkatea izendatzeko osoko bilkura egingo dute. Herri Anitzak han egongo dela iragarri du. Eurei dagozkien zinegotzien karguak inork ez hartzeko eskatu dute.**

Bihar Inazio Lakuntza Arrasateko alkate izendatuko dute osoko bilkuran. Hortik aurrera, gainerako guztia zalantzan dago. Besteak beste, zein alderdik parte hartuko duten udal gobernuan.

EAJ-EAko ordezkari Inazio Lakuntzak Arrasate Irratiari adierazitakoaren arabera, PPrekin salbu (ez direlako EAJ-EAren

harremanetan jarri), gainerako indar politikoekin berba egin du koalizioak, eta jasotako aurreneko inpresioa oso baikorra izan da. Gaineratu du oraindik ez dutela proposamen zehatzik egin, baina alderdiek oso jarrera positiboa erakutsi dutela. Koalizioak gura du herriaren aurrean herriko alderdiek elkarren artean konpontzeko gai diren irudia erakustea. Oraingoz gertu dago guztiekin lan egiteko.

Bestalde, Joxe Etxeberriak Aralarren izenean adierazi du Aralarrek erabaki duela oraindik udal mailan esperientzia handirik ez dutela-eta, Gobernu batzordean parterik ez hartzea.

Ezker Batuari dagokionez, exekutibaren erabakiaren zain dardela esan du Joseba Ugaldek.

PSE-EEren izenean Paco Garcia adierazi dio Arrasate Irratiari eurek ez dutela ezeren eskaera formalik jaso. Biharko batzarre-joateko asmoa dutela eta, jakina, Blanca Roncalen aldeko botoa emango dutela.

Bukatzeke, Herri Anitzako kideek ere biharko batzarrean parte hartuko dutela iragarri dute. Lehenik eta behin, gaur, egubakoitza, 19:30ean batzarra deitu dute itxialdia egin edo ez erabakitzeko. Eta bihar, 11:00etan, Herriko Plazan kale bilkura zaratatsua egingo dute "barruan daudenek entzun dezaten". Gero, batzarrean interbentzioa egiten ahalegingo dira. Besteak beste, eurei dagozkien lau zinegotzien lekuak hutsik uzteko eskatu diete gainerako indar politikoei.

## Gizarte larrialdietako laguntzetarako dirua agortu egin da

U.M.

**Azken bi urteotan gertatu den moduan, aurten ere urtea bukatu baino lehen agortu da gizarte larrialdietarako Eusko Jaurlaritzak ematen duen dirulaguntza osoa. Orain, zer egin ikusi beharko du Udalak.**

Azken hiru urteotan Eusko Jaurlaritzak gizarte larrialdietarako eman izan duen diru kopurua ez da nahikoa izan, ez Arrasaten ezta EAeko beste herri askotan ere. Kontua da dagoen eskariak gaintu egiten duela gizarte larrialdietarako zehazten duten

diru kopurua.

Aurten Eusko Jaurlaritzak 120.000 euro eman zituen Arrasateko gizarte larrialdiei aurre egiteko. Baina, Udaleko Gizarte Zerbitzuetako arduradun Inigo Garitanok adierazi digunez, Arrasaten ehundik gora eskaera dago. Hala, uda baino lehen agortu da Udalak zeukan diru kopurua.

Horren aurrean, Gobernu batzordeak aukera bi zituen: iaz bezala Udalaren aurrekontuaren kontura finantzatu urte bukarara arte geratzen diren eman beharrekoak edo, Jaurlaritzak emandako dirua agortu denez, herritarren eskaerak bertan behe-

ra utzi. Kontua da iaz erabaki zutela 2003ko aurrekontutik ez zutela ezer hartuko gizarte larrialdietarako.

Horren ondorioz, Gobernu batzordeak erabaki du gai hori ez dela Udalaren eskumena. Baina, era berean, herritarrei ezezkua eman baino lehen erabaki du Jaurlaritzari egoeraren berri ematea eta erantzun azkarra eskatzea. Hortaz, esan liteke oraingoz kolokan daudela laguntzok.

Era berean, esan beharra dago beste urte batzuetan, zenbait herritan, dirua agortu ostean laguntzak emateari utzi egin diotela.



## Ehundik gora neska-mutiko ibiliko dira danborra jotzen

U.M.

**Bihar, zapatua, Sanjuanetako egitaraua hasiko da. Besteak beste, 19:00etan, umeen danborradak herriko kaleak zeharkatuko ditu bere burrundarekin. 120 neska-mutiko baino gehiago izango dira.**

Arrasate Musikaleko Bandak lagunduta irtengo da umeen danborrada Nafarroa etorbideetik. Handik Garibai etorbidera joko du, Maalara gero, Erdiko kalera ondoren, eta bukatzeko, Herriko Plazara iritsiko dira.

Neska-mutiko ugarik hartuko dute parte: 120 ume danborra

jotzen ibiliko dira, eta sukaldariak, kantinerak eta Arrasate Musikaleko Bandako musikariak ere irtengo dira. Guztira, bost konpainia. Hortaz, talde polita irtengo da Arrasateko kaleetara. Urtero moduan, SUDC elkarteak antolatatu du ekimena. Kideen esanetan, kostata lortu dute, baina itxura ederra du umeen danborradak.

### BANDERADUNAK

Banderadunak ere izendatu dituzte. Argazkikoak dira, ezkerretik eskumara: Ikurrinduna, Marta Lizarralde; SUDCen banderaduna, Jone Barrena; jenerala, Jon Madinabeitia; eta Arrasateko banderaduna, Maialen Iartza.



### Pareta berria egiteko lanak

Astelehenaz geroztik (hilak 9) Gipuzkoa etorbideko erreprede zati baten errei bat itxita dago. Hain justu, Gelmatik IFAMeko etxebizitzetarako tartean; izan ere, lanak egiten dabil han Sukia enpresa. Helburua da espaloien bazterreko pareta berriro egitea. Emandako informazioaren arabera, gutxienez 15 bat egunez ibiliko dira lanean. Hortaz, pare bat astean semafororeen bitartez bideratuko dute autoen joan-etorria txandaka. Horren ondorioz, batzuetan auto ilarak sortzen dira han, eta komeni da pazientzia apur bat izatea datozen egunotan.



# Urte gutxi barru ibarreko ibaiak garbi-garbi eta bizi-bizi ikusiko ditugu

UBANE MADERA

Orain arte Deba ibaia garbitzen ibili dira Arrasaten, eta laster Aramaio ibaia garbitzeko lanak egiten hasiko dira. Hala, behin lanok bukatu ostean, eta aurreikuspenen arabera, lauzpabost urte barru ibarreko ibaiak garbi-garbi ikusiko ditugu.

Dagoeneko igartzen da Deba ibaian zikinkeria txikiagoa dagoela. Izan ere, azken urteotan Eskoriatzan hasi eta Arrasateraino ur zikinak batzeko kolektoreak eraikitzen ibili dira.

Arrasateren kasuan, kolektore horrek Kataideraino eramaten ditu ur zikinok. Helburua da, gero, Oñatiko eta Deba eta Aramaio ibaiaetako ur zikin guztiak garbitzeko araztegia eraikitzea Epelen.

Bien bitartean, Arrasateko Etxe Txikietaraino urak oso garbi doaz. Edozelan ere, Etxe Txikien inguruan Aramaio ibaiak bat egiten du Deba ibaiarekin, eta zikindu egiten du. Hala ere, laster zati hori ere garbi-garbi joango da, Aramaio ibaia garbitzen hasiko dira-eta.

## LAN HANDIA

Dagoeneko idatzi dute garbiketako egiteko proiektua. Hain zuzen, hilabetez jendaurrean ipini dute Arrasateko udaletxean, gura duenak alegazioak aurkez ditzan. Horren ondoren, aldaketarik balego-edo, horiek egin eta proiektua behin betiko onartu eta gero, asko jota 22 hilabeteko epean bukatu beharko dituzte lanok. Aurrekontua ia 12 milioi eurokoa da.

Era berean, lan handia egin beharra dutela-eta, lanok zatika



Kolektoreak ipintzen hasi zirenetik dezente garbiago ikusten da Deba ibaia.

egingo dituzte.

## GESALIBAR-ATXABALPE

Hala, Gesalibar auzoaren eta Aita Menni ospitalearen ur zikinak batzeko kolektorea egiten hasiko dira. Hori da lanen lehenengo zatia.

Bigarren zatia Atxabalpe futbol zelaiaren hasiko da; futbol zelai-ko harmailen azpitik pasatuko da hodia; hortaz, derrigorrezkoa izango da Atxabalpeko harmailak desmuntatzea.

## GARAGARTZA-OTALORA

Kolektoreak Atxabalpeko apartamentuetatik aurrera segituko du, Aramaio erreka zeharkatuko du eta Garagartzan sartuko da. Auzoa kale nagusitik zeharkatuko du, Fagorreraino. Hirugarren zatia izango da hori.

Eta, hortik Mendizapi base-riraino iritsiko da. Besteak beste, Markulete industrialdeko isurtzeak batuko ditu bidean (laugarren zatia). Eta, hala, Otalora kaleraino iritsiko da (bosgarren zatia).

## OTALORA KALEA

Otalora kalean seigarren zatia hasiko da, eta kale azpitik kalearen amaieraraino eramango dute kolektorea. Handik Aramaio eta Deba ibaiek bat egiten duten punturaino iritsiko da zati hori. Eta puntu horretan kolektoreko urak Deba ibaia zeharkatzen duen kolektorera irtengo dira, Epeleko araztegiara iritsi arte.

## DESJABETZEAK

Bide hori guztiori egiteko, derri-

gorrezkoa izango da lurra okupatzea. Horietako batzuk betiko hartu beharko dituzte, eta beste batzuk lanek iraun artean. Lur horiek eskuratzeko desjabetzearen bidea erabiliko dute. Hala, desjabetu beharreko lurren zerrenda udaletxean dago gainerako proiektuarekin batera, interesa duenak ikus dezan. Hain zuzen ere, hilabetez egongo da udaletxean.

## ERAGOZPENAK MURRIZTU GURAN

Bestalde, lanok egiteko, zenbait lekutan eragozpenak sortuko dituzte; izan ere, lurra altxatu beharko dute, errepideak moztu, argia eta ura moztu... Hori guztiori kontuan hartu eta lanak ahalik eta eragozpen txikien sorrarazteko moduan antolatu gura izan dute egitasmo osoa.



## Klimaren gaineko erakusketa

Astelehenean, hilaren 9an, inauguratu zuten Monterronen klimaren aldaketaren gaineko erakusketa. Eta gaur, egubakoitza, itxi dute.

Hain zuzen, klima aldatzen dabilela-eta, horren zergatia eta horren ondorioak aztertu dituzte, besteak beste. Guztira 12 panel ipini dituzte. Eta, esate baterako, paneletan esaten dute CO<sub>2</sub> larregi igortzen dugula atmosferara garraiobideen bitartez; bestetik, berogailuei dagokienez, ez dela komeni 20 gradutik gorako tenperatura izatea. Hortik gorako gradu bakoitzeko energiaren kontsumoa %5etik %7ra artean igotzen da.

## Euskara bultzatzen duten elkarteendako, 441.563 euro

U.M.

Oraingo asteko Gobernu batzordeak 441.563 euro onartu ditu bederatzik elkarteen artean banatzeko. Elkarte guztiek euskara bultzatzeko edo normalizatzeko egiten dute lan.

Arrasateko Udalak euskararen alde lan egiten duten bederatzik elkarteren artean banatuko du diru kopuru hori. Elkarte gehienak Arrasatekoak dira, baina kanpokoak ere badaude.

## ARRASATEKOAK

Hala, herriko Putz eta ARRASATE PRESS aldizkariak laguntzeko eta Arrasate Irratia kudeatzeko dirulaguntzak eman diz-

## LABUR

### 2003ko enpresen laguntzen programa zabaldu dute

Lanpostu berriak sortzeagatik Enpresei Laguntzeko Programaren 2003ko deialdia egin du Arrasateko Udalak. Horrela, interesa duten enpresek datoren irailaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dituzte eskaerak. Gero, Udalak hiru hilabete izango ditu dirulaguntzak erabakitzeko; hain zuzen ere, eskabideak aurkezteko epea agortu eta hurrengo egunetik aurrera.

### Lan eskaintza publikoa Arrasateko udaletxean

Hamasei lanpostu ditu Udalak betetzeko, eta Gobernu batzordeak onartu egin du lan eskaintza hori plazaratzea, eta laster Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean publikatuko dute. Hala ere, esan beharra dago eskaintza orain publikatuko den arren, lanpostuak betetzeko prozesua seguruen udako oporraldien ostean egingo dutela.

Esandako moduan, 16 lanpostu daude, baina horietatik bederatzik barne promozioak izango dira, eta beste zazpi txanda librekoak. Hain zuzen ere, txanda libreko lanpostua edozein herritarrek eskura dezake. Honako langileak behar ditu Udalak: saneamenturako eta auzoetako teknikari bat, prebentzio eta gizarteratze teknikari bat, udaltzain bat eta peoi bi. Bestalde, Iturbide Egoitzarako ere badaude txanda libreko postu bi: aisialdirako begirale bat eta sukaldari laguntzaile bat.





## MONTEKO PORRAKO IRABAZLEAK

J oan den asteko eguen arratsaldean banatu zituzten Monte tabernako Giroko porra sariak. Lehenengo saria Bizkai aldera joan zen: Josu Bide izeneko taldeak 3.528 euro eskuratu zituen. Bigarren taldea 71 puntura geratu zen. Maialen izeneko taldeak 2.205 euro irabazi zituen. Eta hirugarren sailkatuarendako, Potxolorendako, 1.102 euro izan ziren. Giroa amaituta, Tourra hasiko da laster, eta hortxe ere sari ikusgarriak egongo dira jokoan.



## DOMEKAN, REALA ANIMATZERA UARKAPE PILOTALEKURA!

D ome kan Celtaren eta Realaren arteko partidua ikusteko, Bonba Taldie, Arrasate Txuri-urdin eta Igõa jarraitzaile taldeek ideia ezin hobea izan dute. Uarkape pilotalekuan pantaila erraldoia jarriko dute, partidua giro ezin hobean ikusteko. Arratsaldeko zortzi eta erdietatik aurrera pilotalekura sartzeko aukera egongo da. Partidua gaueko bederatzietan izango da, eta Realeko jarraitzaileek euro bat ordaindu beharko dute partidua ikusteko.

## GARAGARDOAREN JAI ARRAKASTATSUA

J oan den astean Arrasate Errugbi Taldeko mutilek Erdiko Plazan jarri zuten karpa jendez gainezka egon zen asteburu osoan. Jende asko animatu zen Alemaniako garagardoa probatzera. Eguraldiak lagundu egin zuen, eztarriak freskatzea beharrezkoa zen-eta. Errugbi-koek euren bazkideen artean egindako zozketan 135 zenbakia izan da saritua. Saridunak asteburu batez talasoterapiaz gozatzeko aukera izango du. Ez da sari makala!



KONTRATAK  
**IRYROK S.L.**  
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis - Apdo. 246  
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 - 79 78 14  
ARRASATE



Txitxinpe

Berezitasunak

Kazuelatxoak

Otarteko hotz eta beroak

Arrasate pasealekua, 33  
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

OSORIK  
PUB

Ignazio Zuloaga 4  
ARRASATE

Mobiliario  
ARENAZA

- ALTZARIAK  
- DISEINUA  
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA



ZALDIBARKO ARETO FUTBOL TXAPELKETA

# Arrasateko AT Celaya taldea nagusitu da aurtengo Zaldibarko Txapelketan

Etixerat-ek bestetan baino hutsegite gehiago egin zituen, eta AT Celayak partidu biribila egin zuen (9-5)



## Betidaniko txapeldungoia

Aurtengo Zaldibarko Txapelketak eman du eman beharrekoa. Urrian hasitako txapelketako azken partiduak jokatu ziren zapatuan, eta azkenean, betidaniko txapeldungoia, AT Celaya taldeak, erakutsi du txapelketako onena izan dela. Etixerat bigarren izan da, Betrayerrekin eskuratu du hirugarren postua eta laugarren Saukelu Scream taldea izan da. Finala jokatu aurretik Etixerat zela faboritoa, besteak beste, Etixerat-ek bazekielako final bat jokatzea zer zen. Faborito izatearekin, baina, ez da nahikoa izaten. Partiduak jokatu eta irabazi egin behar dira, eta zapatuan Etixerat ez zen batere fin ibili. Ondo ibili zirenak, berriz, AT Celaya taldekoak izan ziren.

Final txukuna jokatu zuten, lekua galdu barik, eta kontrarioak eman zizkien aukerak bikain aprobetxatu zituzten. Eurak aurreratu ziren lehenengo, Iñigo Labaienek faltaz egindako gol batekin. Partiduko protagonista izan zen Iñigo: guztira lau gol egin zituen faltaz, eta horrek saria izan zuen; izan ere, txapelduna izateaz gainera, beste bi sari eman zizkioten: lehena txapelketako jokalaririk onenetako bat izateagatik eta bigarrena finaleko jokalaririk onena izateagatik. AT Celayak asko eskertu zuen Iñigoren lana, Etixerat markagailuan hurreratu zen bakoitzean Labaien gola egiteko gauza izan zelako.

Golen meritua AT Celayako jokalariena izan zen, baina egia da Etixerat-eko jokalariek erraztasun handiak eman zituztela, AT Celayak faltaz bost gol egin zituen-eta. Eta baloi gerdituko jokaldietan horrenbeste gol egiten dituztenean, erasotzaileak besteko meritu du defendatzaileak. Lehenengo zatia parekatua izan zen, baina bigarrenean Etixerat-ek burua galdu zuen. Minutuek aurrera zihoazela ikusita, Etixerat-eko jokalariek partiduari buelta eman guran erasora jo zuten, eta AT Celayak kontraerasoak aprobetxatuta partidua erabakita utzi zen. Beste behin, antolatzaileek egindako lana azpimarratuz idatziko ditugu azken lerrook, eurei esker elkartzen gara-eta aste bukaerero Zaldibarren. Txalotzekoa, era berean, zapatuko epaile biek egin zuten lan txukuna. Zorionak, AT Celaya! / X.U.

AT Celaya hasieratik aurreratu zen markagailuan, eta Etixerat partiduari buelta ematen ahalegindu zen.

XABIER URZELAI



PILOTA

# Debarroko Txapelketako finala eta San Juanetako pilota jaialdia bihar


Unanuek eta Pascualek Esainen eta Belokiren kontra neurtuko dituzte indarrak Uarkapen

XABIER URZELAI

Bihar, zapatua, pilotaz gozatze-ko hitzordu garrantzitsu bi egongo dira: batetik, San Juanetako pilota jaialdia jokatu da Uarkapen; eta, bestetik, Zugastik eta Lazkanok Debarroko Txapelketako finala jokatu dute Aretxabaletaren kontra Elgoibarren.

Bihar, zapatua, Mondragoeko pilotazaleek izango dute non aukeratu. Arrasateko pilotalekuan, 17:00etan, San Juan jaien barruan antolatzen den pilota jaialdia izango da. Pilota partidu bi izango dira ikusgai: lehenengo, bigarren mailako pilotariak jokatu dute. Beloki II.ak eta Nalda III.ak Aspiroren eta Beginoren kontra jokatu dute; gero, punta-puntako partidu batez gozatzeko aukera egongo da. Buruz buruko txapelketan kanpoan geratu berri den Belokik Esain izango du aurrelari eta beste bikotea Unanuek eta Pascualek osatuko dute. Lehenengo bikoteak, Belokirekin, atzeko koadroetan izango du abantaila eta bigarren bikoteak, berriz, Unanuekin, aurreko aldean erabaki dezake partidua. Ikusi egin beharko da beste pilotari biek zer-nolako maila erakusten duten: bai Esainek baita Pascualek ere.

Aurten normalean baino lehenago jarri dute San Juanetako pilota jaialdia. Baina datorren aste bukaeran Liga Txapelketako azken jardunaldia dela-eta, erabaki ona izan da jaialdia aurre-



XABIER URZELAI

Arrasateko pilotariak Eibarren kontra irabazita eskuratu zuten finalerako txartela.

ratzea. Pilota jaialdia zuzen-zuzenean ikusteko, pilotazaleek 20 euro ordaindu beharko dituzte.

## DEBARROKO FINALA ELGOIBARREN

Aurten Elgoibarri tokatu zaio Debarroko Pilota Txapelketa antolatzea, eta Arrasateko eta Aretxabaletako pilotariak jokatu duten finala Elgoibarren izango da. Hiru final jokatu dira: kadete mailakoa, gazte mailakoa eta senior mailakoa. Partiduak 17:00etan hasiko dira.

Hain zuzen, Arrasateko pilo-

tariak senior mailako finala jokatu dute: Zugastik eta Lazkanok Aretxabaletako Errasti anaien kontra neurtuko dituzte indarrak. Partidu parekatua izango dela aurrera daiteke, azken norgehiagokan arrasatearrak 22-19 nagusitu ziren-eta. Elgoibarko pilotalekura lehenengo egokitzen den bikoteak abantaila handia izango du, eta arrasatearrak dagoeneko egon dira pilotalekua bisitatzen. Ez ei da pilotaleku batere txukuna, baina bikote biendako pilotaleku bera izango da.

# Maria Jose Gilek urrezko domina bi eskuratu ditu Euskadiko Txapelketan

Joan den aste bukaeran Euskadiko Beteranoen Atletismo Txapelketa jokatu zen Mendizorroztan, Gasteizen. Arrasateko atleta beteranoak sasoi betean dagoela erakutsi zuen, urrezko domina bi eskuratu zituen-eta.

1.500 metroko lasterketan Maria Jose Gil lehena iritsi zen helmugara eta Mari Fran Alonso bigarren izan zen; 3.000 metroko lasterketan ere Maria Jose Gil izan zen azkarrena eta Mari Fran Alonsok brontzea eskuratu zuen;

5.000 metroko lasterketan, gizonetakoetan, Javier Mentxaka mondragoetarra seigarren izan zen eta Cesar Díez hamargarren.

Anoetan jokatu zen Euskadiko Kadete Mailako Txapelketan, berriz, Lander Errastik urrea eskuratu zuen pertika-jauzian, baina entrenatzailearen esanetan askoz ere hobeto egin dezake jauzia.

## ESPAINIAKO TXAPELKETA TARRAGONAN

Oraingo aste bukaeran beterranoen mailako Espainiako Txapelketa jokatu da Tarragonan, eta Maria Jose Gil mondragoetarrak 1.500 eta 3.000 metroko lasterketan hartuko du parte. Horrez gain, 17 urtetik beherako taldekako Euskadiko II. Kopa jokatu da Tolosan, eta Jonathan Pérezek pertikarekin jauzi egin beharko du, Liga Txapelketa barruan, Anoetan.



ARTXIBOA

Maria Jose Gil, Arrasate-Oñati lasterketan saria jasotzen.

XAKEA

## Arrasate Hiria Xake Txapelketako azken jardunaldia jokatu dute gaur, egubakoitza

Gaur, arratsaldeko zazpitan, Arrasate Hiriko Xake Txapelketako seigarren eta azken jardunaldia jokatu da. Leopoldo Lainz kantabriarra dago lehenengo postuan, 4,5 punturekin, eta Josu Tornay mondragoetarrak eta Borja Zamarbide nafarrak launa puntu dituzte. Hiru jokalar horien artean egongo da txapelketa, baina gaur Leopoldok ez badu kalerik egiten, berea izango da txapelketa. Bere esku dago guztia.

UDA KANPAINA

## AUKEAK gertu du 2003 urteko Uda Kanpaina, eta bihar irekiko dute kanpoko igerilekua

Bihar, zapatua, irekiko dute kanpoko igerilekua, eta, horren hari-ara, dagoeneko abian dago 2003ko Uda Kanpaina. Antolatutako ekintzak ekainaren 30ean hasiko dira, eta aurten ere hainbat kirol ekintzaz gozatzeko aukera egongo da. Ekintza horien gaineko informazioa kiroldegiko bulegoetan edo 943 77 17 77 telefonoan jaso daiteke.

## Koadrila Arteko Pilota Txapelketa

A Taldea	jok.	punt.	B Taldea	jok.	punt.
Gaizka - Ugutz	7	14	Aroste - Gartzia	7	14
Jabo - Raul	7	13	Kepa - Jabi	7	13
Zorion - Jesus	7	12	Ibai - Agiriano	7	12
Bode - Txain	7	11	Mikel - Ion	7	11
Nafa - Alzeste	7	10	Eimon - Zarre	7	10
Jon - Mikel	7	9	Mendieta - Ugarte	7	8
Manex - Ulli	7	8	Lur - Skritx	7	4
Jesus - Carlos	7	5	Boludo - Eotx	7	2

C Taldea	jok.	punt.	D Taldea	jok.	punt.
Poke - Txaima	7	14	Iñigo - Isturiz	6	12
Unai - Asier	7	13	Txori - Mikela	6	11
Saizar - Pon	7	12	Etor - Haritz	6	8
Txopo - Fran	7	11	Iñaki - Arkaitz	6	7
Imanol - Jon	7	9	Kepa - Oxel	6	6
Aranburu - Aranbu	7	8	Mikel - Iker	6	6
Kubano - Txankelu	7	7	Ion - Mikel	6	4
Gari - Igortz	7	5			



## Final laurdenak:

### Ekainak 14, zapatua.

Jabo - Raul vs Poke - Txaima	10:00 Uarkapen
Aroste - Gartzia vs Txori - Mikela	11:00 Uarkapen
Kepa - Jabi vs Iñigo - Isturiz	12:00 Uarkapen
Gaizka - Ugutz vs Unai - Asier	13:00 Uarkapen

## FINAL-LAURDENAK JOKOAN

### MULTZO BAKOITZEKO LEHENENGO BIKOTE BIAK SAILKATU DIRA

Dagoeneko final-laurdenetan dago Arrasateko Koadrila Arteko Pilota Txapelketa, eta geratzen diren zortzi bikoteek bihar goizean izango dute aurrera egiteko aukera. Esan bezala, zortzi bikote sailkatu dira final-laurdenetarako, eta 23 bikote geratu dira bidean. Hasiera baten, multzo bakoitzetik lehenengo postuan sailkatu direnak dira faborito, orain arte jokatu dituzten partidu guztiak irabazi egin dituzte-eta. Hala ere, bigarren postuan sailkatu diren bikoteek eskuratu dituzten puntuak erreparatuta, argi ikusten da aldea benetan txikia dela. Horrenbestez, gaitza da zortzi bikote horietatik finalerdietarako zeintzuk sailkatuko diren aurreratzea. Hori bihar goizean erabakiko da, Uarkapen.



MUSIKA/ Arrasate Musikalek hainbat helburu zehaztu ditu datozen urteotarako

# Arrasate Musikalek 2003-2005eko Plan Estrategikoa aurkeztu zuen

IKER BARANDIARAN

Arrasate Musikalek eta LKSk musika eskolaren 2003-2005eko Plan Estrategikoa egin dute. Arrasate Musikalek hainbat helburu zehaztu ditu: besteak beste, eskaintza giza esparru zabalagora bideratzea eta beste talde batzuekin lankidetzaren indartzea.

Joan den martitzenean, Arrasate Musikaleko eta LKSk arduradunek prentsaurrekoa eman zuten Arrasateko udaletxe oso bilkuren aretoan. Arrasate Musikaleko zuzendari Marta Izagirrek, Arrasate Musikaleko presidentea Xabier Retegik eta LKSk arduradun Alberto Merinok 2003-2005eko Plan Estrategikoa aurkeztu zuten.

## LAU HELBURU NAGUSI

Arrasate Musikaleko eta LKSk arduradunek Arrasate Musikalen baitan egindako hausnarketaren emaitzak laburtu zituzten. Lau ardatz nagusi azpimarratu zituzten: bata, musika eskolaren zerbitzuak beste adin eta giza espa-

rru batzuetara irekitzea. Helduei, hirugarren adinekoei eta Mondragon Unibertsitateko ikasleei ere eutsi gura dietela azaldu zuten. Hartzaile potentzialtzat hartu zituzten.

Bigarrena: hezkuntza kalitatea bermatzea. Orain arte musika eskolan hezkuntza tradizionala landu dute, batez ere. Hemendik aurrera metodologia berriak erabili gura dituzte. Horrekin batera, irakaskuntza euskalduntzeko ahalegina egingo dute.

Hirugarrena etorkizuneko kokapenari dagokio. Gaur egun musika eskolak dituen lokalak ez dira oso egokiak, eta Udalarekin harremanetan daude leku duina lortzeko.

Laugarrena: Debagoieneko beste erakunde batzuekin lankidetzaren bultzatu gura dute, bai musika eskolekin baita beste elkarte batzuekin ere. Besteak beste, epe luzerako jarri dituzten helburuen artean, Debagoieneko musika eskola eta Debagoieneko orkestra sortu gurako dituzte.

Gaur egun musika eskolak 500 ikasle ditu, eta hiru urteren buruan 800 izan gura dituzte.



Esteban Merinok, Xabier Retegik eta Marta Izagirrek azaldu zuten Arrasate Musikalen Plan Estrategikoa.

IKER BARANDIARAN

Loramendi kirolak

www.loramendikirolak.com

INTERSPORT  
International Customer Assistance and Support Card  
4539 6542 2130 0000



**MUSIKA/** Bihar, zapatua, 70eko hamarkadako II. jaia egingo dute gaztetxean

# Aurreko hamarkadetako kantuak, 12 talderen eskutik

IKER BARANDIARAN

Herriko Culture taldeak eta gaztetxeko batzarrak, AGAKOk, 70eko hamarkadako II. jaia antolatu dute. Aurten ere herriko eta beste herri batzuetako taldeek 50eko, 60ko eta 70eko kantuak joko dituzte. Jaia gaztetxean izango da, eta herrian giro berezia izango da.

Herriko Culture taldeak, gaztetxeko batzarraren laguntzarekin, 70eko hamarkadako II. jaia antolatu du. Gaztetxea jai horretarako apropos apainduko dute. Horrez gain, Arrasateko eta beste herri batzuetako hainbat talde 50eko, 60ko eta 70eko hamarkadetako kantuen bertsiokak prestatzen ibili dira. 70eko hamarkadako baino berriago den kanturik ezin izango da jo; 50eko, 60ko eta 70eko hamarkadakoak, oster, bai. Hori da jai horren arauetako bat.

## MOZORROTZEKO ESKAERA

Iaz lehenengo aldiz antolatu zuten 70eko hamarkadako jaia, eta oso arrakastatsua izan zen. 17:00etatik jaia bukatu zen arte gaztetxea bete-beteta egon zen, giroa ezin hobea izan zen eta jende ugari mozorrotu egin zen. Horren harira, aurten ere mozorrotzeko gonbita egin dute antolatzaileek. Eta esan beharra dago mozorrotzen direnek deskontuak izango dituztela jai horretan.

Aurten, guztira, 12 musika taldek joko dute. Horietatik gehienak Arrasatekoak dira, baina badaude Gasteizkoak, Santanderkoak, Iruñekoak eta Galizia-koak ere.

Hala ere, esan beharra dago talde guztiek kantuak jai horretarako moldatuko dituztela. Esate baterako, Cretinos taldeko batzuek Rompecorazones izena-



Argazkian Iruñeko Mermaid, jaialdian parte hartuko duen taldeetako bat.

*“Hainbat musika taldek 50eko, 60ko eta 70eko hamarkadetako kantuak joko dituzte”*

rekín joko dute; The Jukebox taldea The Flaming Jukebox bihurtuko da; Experience taldeak estreinako egingo du; Galiziako Ultracuerpos taldeak 50eko hamarkadako kantuak jotzeko Rockers Go To Hell deitura asma-

tu du; Iruñeko Mermaid-ek askalo zer eskainiko duen; Gasteiztik Las Novias y Las Hermanas de los Obligaciones etorriko dira; Kañeria 13 taldeak Chachi Way Rebels deitura hartuko du; Santanderko Los Rumps eta Arrasateko Versus eta Anger taldeek ezustekoren bat emango digute; bukatzeko, Los Chicos Boom taldeak Fat Lizzy izenpean joko du.

Jaia gaztetxe berrian izango da, Uarkape Udal Pilotalekuaren atzeko aldean, eta 17:00etan hasiko da. Mozorrotzen direnek hiru euro ordaindu beharko dituzte. Gainerakoek, berriz, bost euro ordaindu beharko dituzte.



## Arrasate Musikaleko ikasleek ez dute atsedetik hartu gura

I.B.

Arrasate Musikaleko ikasleek eta irakasleek ez dute atsedetik hartu gura, eta etengabe kontzertuak ematen ari dira. Joan den astean mordo eman zituzten, eta oraingoan ere beste asko prestatu dituzte.

Joan den astean Arrasate Musikaleko ikasleek eta irakasleek kontzertu mordo eman zituzten. Horien artean, bata oso berezia izan zen: domekan, Debagoieneko fusilatuen aldeko omenaldian. Arrasate Musikaleko bandak hainbat pieza eskaini zituen: *Internazionala*, *Eusko Gudariak*, eta abar. Emanaldi laburra izan zen, baina oso hunkigarria.

Joan den astelehenean ere kontzertu bi eman zituzten: bata, Amaia Udal Antzokian. Hura kontzertu pedagogikoa izan zen eta hainbat eskolako ikasleek hartu zuten parte; bestea Musi-

ka Eskolan egin zuten eta fagoteko eta oboeko ikasleek hartu zuten parte.

### IKASTURTE BUKAERA

Gaur, egubakoitza, ikasturte bukaera ospatzeko kontzertua egingo dute Amaia Udal Antzokian. Arrasate Musikaleko konboak, balet taldeak, talde instrumentalak, orkestra txikiak eta orkestra handiak hartuko dute parte. 19:00etan izango da.

Bihar, zapatua, Arrasate Musikaleko Bandak, J.R. Elkorooren zuzendaritzapean, hainbat pieza interpretatuko ditu umeen danborradan, 18:30etan.

Martitzenean, ekainaren 17an, Arrasate Musikaleko balet taldeak emanaldia egingo du Seber Altube plazan. 18:00etan izango da eta taldea Jana Fuentesek zuzenduko du. Eta eguaztenean Arrasate Musikaleko ikasturte bukaerako kontzertua egingo dute. Eskolan izango da, 18:30ean.

## Domekan, sendabelarren bilketa eta erakusketa

I.B.

Etzi, domeka, AEDk sendabelarren bilketa eta erakusketa antolatu ditu. Seber Altuben batuko dira, 08:00etan, eta taldeetan banatuko dira. Sendabelarrak jaso ostean erakusketa egingo dute.

Domekan, ekainaren 15ean, AEDk sendabelarren bilketa eta erakusketa antolatu ditu. Iaz rallya egin zuten, baina aurten sendabelarrak taldeka hartuko dituzte. Sendabelarren ikastaroan parte hartu duten zortzi edo bederati lagun antolaketa lanetan ibiliko dira. Bilketan parte hartzeko deialdi irekia egin dute, eta domekan Seber Altubera hurreratzen direnak ikastaroan ibilitakoekin elkartuko dituzte.


08:00etan egin dute hitzordua, Seber Altuben. Guztira 91 sen-

dabelar jaso beharko dituzte. Hiru talde egingo dituzte, eta talde bakoitzak 30 bat sendabelar hartu beharko ditu. 08:15erako banaketa egingo dute eta talde bakoitzak zona bat aukeratu beharko du.

### SENDABELARREN GAINETIK FITXAK

Beste talde bat Seber Altuben galdituko da erakusketarako mahaiak eta fitxak prestatzen. 11:00ak aurretik sendabelarren bila joandako taldeak bueltan izango dira. Antolatzaileek Seber Altubera eramandako sendabelarrak konprobatuko dituzte.

11:30etik 14:00ak bitartean erakusketa gertu egongo da Seber Altuben. Sendabelar bakoitzak argazki bat eta fitxa bat izango ditu. Fitxa horietan sendabelar horrek zein gaixotasun senda dezakeen eta harekin egindako errezeta bi idatziko dituzte.



## EHZ jaialdirako lantaldeak

AEDko Gazte Sailak Euskal Herria Zuzenean jaialdian lan egiteko taldeak osatu gura ditu. Arrosan (Nafarroa Beherea) egiten den jaialdia (uztailaren 3a, 4a eta 5a) arrasatearrak urtero joan ohi dira. Hasieran Txatxilipurdik antolatzen zituen taldeok, eta orain AEDk hartu du dio lekukoa. Lan egiteko hiru aukera daude: karpamuntatu eta jaialdian lan egin; jaialdian lan egin eta karpadesmuntatu; edo jaialdian lan egin. Izena ematean 22 euro ordaindu behar dira. Gastu guztiak barne daude.



BEHEKODENDATIK

# Manolo Cruz

## TAKOI OIÑETAKO KONPONKETAK

XABIER URZELAI

Larreko etxiek egin berri zabaldu euen Manolok oiñeta-kuek konponketako tailerra. Lehenago zerbitzari eta fabrikari lan egindakue da, eta oin gustora dabil, gauzak ondo doiez eta. Gaiñontzeko gizonok kale egitten dogun horretan ederto moldaketan da Manolo: ondo baiño hobeto egitten dau dantza.

**Txikittan ze gure zeuen izen?**

Kamionero.

**Eta oin, lanbide hori hartuko zeuke?**

Ez, nahiz eta gidabaimen danak dauketen.

**Ze eskatuko zeuskio alkate barrixari?**

Gauza asko: herrixen alde lan egin daixela, futbol zelai eta kirol-degi barrixe egin daixela eta gaztiendako etxebizitza gehixago ipiñi daixela.

**Drogak legalizauko zeuke?**

Ez da errexha hori. Ez dot uste.

**Eta prostituziñue?**

Bai, egoera hobien egon dai-tzenen.

**Pelikula bat? Liburu bat? Musika talde bat?**

*El último Mohicano / El señor de los anillos / Mana, adibidez.*

**Nora juengo zitzake gustora?**

Kubara, adibidez.

**Uharte batera ze hiru gauza eruengo zeuke?**

Emaztie, umiek eta poxpolu batzuk.

**Etxeko lan gorrotagarrixena?**

Nahiko abildosue naz... baiñe plantxie egittie eșango dot.

**Juergazalie zara? Juergarako leku bat?**

Juergazalie baiño gehixago, martxosue naz. Gasteiz.


**Puntuau Mondragueko girue.**

Zortziko bat bai.

**Ze dauko ona udaberrixek?**

Neskak guapatu egitten diela eta danok be pozixago ibiltten gare-la.

**Zure lanerako ezinbestekue dan gauza bat?**



*“Zapatak konponketie merezi dau, ez dielako bat be merkiek eta askotan barri-barri geraketan dielako”*

Pazientzia eukittie eta ardura-dune izetie.

**Tranpan ibilttektan nor-baittekin, zeñekin?**

Julia Roberts-ekin.

**Jefiari ze esango zeuskio gustora?**

Ni neu naz jefie, eta holaxe jarraiketako esango dutzet neure buruari.

**Denpora librien ze egitten dozu?**

Dantza egittie gustetan jat. Saloi dantzak egitten dittut.

**Janari eta edari gustokue-nak?**

Jateko, bakalaue; eta edateko, pika.

**Ze albiste irakurriko zeuke**

*“Jeneralien zapata batzugatik ondo ordainketan danien, gero igerri egitten da”*

gustora ARRASATE PRESSen?

Pakie lortu dogule.

**Zapatak saltzie ala konponketie da erraxague?**

Esango neuke zapatak saltzie dala erraxague.

**Gaur egun merezi dau zapatak konponketie?**

Bai. Zapatak ez die bat be merkiek, eta sarrittan nahiz eta takoie apurtu edo suelie gastau, zapata barri-barri egoten da.

**Ze daukie 300 euroko zapatek?**


Oso kalidade ona. Sarrittan markiagaittik be ordaindu egin biher izeten da, baiñe jeneralien zapata batzugatik ondo ordainketan danien igerri egitten da.

## NIREBIDAIAHURA/ Arnaitz Eraso

Italiara / 2002ko azaroa eta abendua

**A**rnaitz azken hilabeteotan birritan egon da Italian; hortaz, datozen zenbakiotan kontatuko dizueguna bidaia bi haien laburpena izango da. Lehenengo bidaia, joan den urteko azaro eta abenduan egin zuena, Italia ezagutzeko aprobetxatu zuen, eta bigarren bidaian, otsailetik apirila arte iraun duena, Italiara itzul-tzeaz gainera, Europako beste herrialde batzuk ere bisita-tu ditu.

Langabezian zegoela apro-betxatuta, Italian zeuzkan lagu-nak bisitatzeko asmoarekin abiatu zen Arnaitz Italia alde-ra. Joan den urteko azaroan izan zen lehenengo bidaia. Fur-gonetan beharrezko guztia sar-tu eta bidaiari ekin zion. Ordu asko egin zituen errepidean, eta gaueko hamabiak aldera iritsi zen Milanera. Lagunei telefonoz deitu zien, baina gaitza zen euren etxea aurkitzea. Azkenean, San Siro futbol zelaiako parkingean aparkatu eta hantxe pasatu zuen gaua. Hurrengo goizean lagunak etorri zitzaizkion futbol zelaira, eta haien etxea 500 metrora bai-no ez zegoen. Egun batzuk Mila-nen egin, eta furgoneta hartuta hegoalderantz joatea erabaki zuten. Mendi artean dagoen Cin-queterre herrian egon ziren:



*“San Siro futbol zelai ondoan eman nuen lehen gaua”*

“Kostatu zitzaigun hara iristea. Errepidea estu-estua zen, eta furgonetarekin pasatzeko sekulakoak egin behar izan genituen. Gero, herrian hiru aparkaleku baino ez zeuden, eta lo egiteko bertako bizilagunen etxe batera joan behar zenuen. Hala ere, herri polita zen, kuriozosa.

Cinquetarren hainbat egun egin eta gero, Sienarako bidea hartu zuten Arnaitzek eta lagunak. Italiako hainbat herrik Erdi Aroko kutsua daukate, eta Siena da herri horietako bat. Florentzian ere egon ziren, eta Berlusconiaren kontra-kale agerraldi baten parte hartzeko aukera izan zuten. Florentzia oso leku turistikoa ei da: “Hango parking baten furgoneta hiru orduz aparkatzeagatik 40 euro ordaindu behar genituen. Hainbat eguneko bidaia egin eta gero, Florentziatik Milanera itzuli ziren, baina bidaia ez zen han amaitu, Vene-ziara joateko asmoa zuten-eta.

XABIER URZELAI




Italiako herrixka ikusgarri bat: Cinqueterre.

## TTUKUN

- Fotokopiak
- Liburu josteak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias 23 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 46 62

Garagardo ona, giro hobea



**TXIRRITA**

Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

arbolapeta



**GORKA** ileapaindegia  
peluqueria

**GORKA**

Orduetgia:  
Astelehenetik-ostiralera 09.30-20.00  
Larunbatetan 08.00-14.00  
Ferrerias 35 - 943 77 13 78





ARRASATE  
**Eneko Elizaran**  
Ekainaren 11n, 1 urte.  
Zorionak! Familiakoak.



ARAMAIO  
**Jesus Gardoki**  
Ekainaren 10ean, urtebete-  
tzea. Zorionak! Etxeko-  
en partetik.



ARRASATE  
**Jon Merino**  
Ekainaren 13an, 18 urte.  
Zorionak! Etxekoen eta  
amamaren partetik.



ARRASATE  
**Ana Rosa Guridi**  
Ekainaren 14an, urtebete-  
tzea. Zorionak! Jokinen eta  
Julenen partetik.



ARETXABALETA  
**Maria Agirre**  
Ekainaren 15ean, urtebete-  
tzea. Zorionak! Lankide-  
en partetik.



ARRASATE  
**Oskar Caballero**  
Ekainaren 10ean, urtebete-  
tzea. Zorionak! Familia-  
koen partetik.



ARRASATE  
**Eva Pando**  
Ekainaren 12an, urtebete-  
tzea. Zorionak! Angel, Cris,  
Nerea, Aitor, Jone eta Pako.



ARRASATE  
**Julen Galarza**  
13an, 5 urte. Zorionak eta  
muxu handi bat! Amama,  
aitita eta Antxon.



ARRASATE  
**Mari Karmen Astola**  
6an. Zorionak eta muxu  
handi bat, Julenen eta  
Antxonon partetik.



ARETXABALETA  
**Gorka Etxabe**  
Ekainaren 19an, urtebete-  
tzea. Zorionak, txirrin-  
dulari! Lankideen partetik.



ARRASATE  
**Igor Del Palacio**  
Ekainaren 11n, urtebete.  
Zorionak! Amatxo eta aita-  
txo.

**Adi!**

Argazkiak emateko lekua:  
**Arrasate:**  
ARRASATE PRESS  
Otalora Lizentziaduna 31.

# Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak  
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu bere argazkia\*  
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

\*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.  
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra ARRASATE PRESSen agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.



## URONDO

Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76




EZETZASMATU



ARTXIBOA

Zein errepide da argazkian eraikitzen dabilzan hori?  
Arrastoa: Bizkaira joateko bideetako bat da; gaur egun, zabalena eta berriena.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEk asmatzaileron artean!



ERANTZUNA .....

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

Ekarri txartela **ASTELEHEN ARRATSALDEAN**  
ARRASATE PRESSERA!

**Don Rodrigo ardo beltza eta gorria**  
75cl-ko botila

**0,60€** 100 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

**MAITE OLABE**rendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Maite!  
Galderaren erantzun zuzena:  
**Zarugalde kalea.**

ARRASATEKOHISTORIA

Udalatxen existitu zen ermitaren gainekoa

JON ANDER RAMOS

**A**ntzina Udalatxen ermita bat zegoen. Haren gaineko lehenengo aipamen historikoa 1528ko dokumentu baten egin zuten. Han esaten zenez, meza esan zuten Udalako San Asentzian.

Handik aurrera, ermitaren gaineko bestelako aipamen dezente egin izan dira: hala, 1570ean Esteban de Garibaik aipatu zuen; 1568an jaiotako Bernardo de Balbuenak *Bernardo* izeneko poema epikoan ere aipatzen du. Orreagako gatazkan parte hartu zuten zaldunen gainean berba egiten du, eta besteak beste, bat aipatzen du, "Udalatxako haitz altuan bizi den eta mundua bere ermitatik zuzentzen duen Arbante monje zainduak" fededun bihurtu zuena.

1659an Barbara de Abarrategi andre dirudun arrasatearrak testamentuan ermitari diru kopurua utzi zion.

1713an, Mendekosteko hirugarren egunean prozesioan joateko ohitura zegoen, baina Visitador Sinodal jaunak debekatu egin zuen. Mezak eta horrelakoak esateko baimena

*1713an,  
Mendekosteko  
hirugarren egunean  
prozesioan joateko  
ohitura zegoen*

*1773an 614  
errealeko diru  
partida zehaztu  
zuten ermita  
botatzeko*

eman zuen, baina ez prozesioak egiteko.

Urte batzuk geroago, 1769an, Gipuzkoako Batzar Nagusiek beharrezkoak ez ziren ermita guztiak ixteko agindu zuen. Eta, 1770ean Arrasaten zegoen alkateak ez zituen ermitak oso gustuko, eta, parrokoaren eta Gotzaindegiaren baimenarekin, 1971n herriko ermita guztiak itxi zituen. Pare bat urte



ARTXIBOA

Gipuzkoako eta Bizkaiko mugatik gertu daude San Asentzio ermitako hondarrak, itsasoaren mailatik 1.020 metrora.

geroago, 1973an, diru partida bat (614 erreal) zehaztu zuten Udalako ermita botatzeko eta teilak herrira ekartzeko. Edozelan ere, ermita itxita egon arren, bisitariak hartzen segitu

zuen. 1883an Gesalibarren jaiotako Rufino Agirrek dio gaztetan beti igotzen zirela 40 kredoak errezatzen. Francisco Parraya gesalibartarrak dio XX. mendearen aurreneko urteetan

Udalako gazteak soinu eta guzti igotzen zirela Asentzioko ermitara, erromeria egitera. Eta 1925ean Juan Carlos Guerra ermita konpontzen ahalegindu zen, baina ez zuen lortu.



# Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2003ko ekainaren 13a / 68. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

## Bihar goizean goiz aukeratuko dute alkatea

UBANE MADERA

**Bihartik (zapatua) aurrera Mertxe Mondragon Aramaioko alkate berria izango da. Legeak agintzen duen moduan, osoko bilkura egingo dute datorren agintaldirako alkatea izendatzeko. hAMAlau plataformak batzarrean egongo dela iragarri du, eta batzarren ordua kritikatu du.**

Ibarreko gainerako herriekin konparatuta, goizean goiz egingo dute Aramaion biharko batzar berezia: 09:00etan, hain justu ere. Aurreikuspenen arabera, ez da ezustekorik egongo, eta EAJ-EA koalizioa zinegotziek Mertxe Mondragon izendatzeko dute datozen lau urteotarako alkate.

Hortik aurrerakoa erabakitzeko dago. Izan ere, gainerako herrietan moduan, hAMAlau pla-

taformak EAJ-EA koalizioari eskatu dio euri dagozkien hiru zinegotziren karguak inork ez hartzea. Gestora bat antolatzea proposatzen dute, eta horrela euri sarbidea ematea.

Hori negoziatzeko, plataformak jakinarazi digu ekainaren 5erako geratuta zeudela alkategaiarekin eta zerrendako azken hirurekin (euri dagozkien zinegotziak direlako). Baina, itxura denez, alkategaiak ezin zuela abisatu zuen eta gainerakoak ez ziren agertu. hAMAlauk uste du hori errespetu falta dela, eta, gainera, EAJ-EAri dagokiola euri deitzea, koalizioak osatu behar du eta gobernua. Horrez gainera, osoko bilkura 09:00etan ipini izana kritikatu dute. Honakoa uste dute: "Horrek adierazten du herriarrak ez hurbiltzea nahi dutela EAJ-EAkoek. Antza denez, era itxian antolatu nahi dute Udala, eta hori zuzen-zuzenean demokraziaren kontra doa".

EAJ-EAren izenean, berriz, Mertxe Mondragonek jakinarazi digu oraindik ez dutela ezer zehaztu hAMAlauko ordezkariarekin, baina gertu daudela euren berba egiteko.



ARTXIBOA

Bihar, zapatua, 09:00etan egingo dute alkatea izendatzeko batzarra.

## Gazteak lokal barik geratu dira, Udalak hala erabakita

Kultura etxe berriko gazte-lokalak zabaldu zituztenetik urte eta erdi pasatu ostean, lokalok berriro ere ixtea erabaki du Udalak.

Udalak helarazitako informazioak honakoa dio: "Segurtasun eta garbitasun arazoak direla eta bertan hondatutakoak kontuan hartuta 2003ko ekainaren 9tik aurrera itxita egongo da, Aramaioko Udalak erabaki berri bat hartu arte". Hala, datorren ekainaren 18an batzarra egingo du Udalak lokal horien erabiltzaileekin. Besteak beste, lokaletan izandako hondaketen zerrenda eta horien kostu ekonomikoaren berri emango dute batzarrean.

### GAZTEAK HASERRE

Gazteei dagokionez, ez daude batera pozik gertatutakoarekin. Gazteen izenean Maddalen Nafarra-

tek esan digunez, gehien hasererazi dituen da Udaleko ordezkariak abisatu barik sartu direla lokaletan. Onartzen dute gauza batzuk apurtu dituztela, baina horrekin batera diote holakoren bat gertatu den bakoitzean eurak izan direla Udalari abisatzen lehena. Eta diote han hezetasun handia dagoela, eta horren ondorioz, hormetako margoa eta erori egin dela; hortaz, eurak ez direla lokalen egoeraren errudun bakarrak. Garbitasun kontuari dagokionez, ez dute onartzen gazte-lokalak zikin zeudenik. Batzar bat egitea eskatu dutela ere esan digute, eta ezezkoa jaso dutela. Hala ere, datorren alkate berriari beste batzar bat eskatu diote, ekainaren 18a baino lehen. Izan ere, adierazi dute orain kale gorrian daudela, nora joan eta zer egin jakin barik.



ARTXIBOA

50-60 bat lagunek erabili izan dituzte orain arte kultura etxe berriko lokalak.



## Herriko jaietako kartela

Hementxe duzue aurtengo San Martin jaiak iragarriko dituen kartela. Ibarreko Belen Agirre izan da egilea; Udalak antolatutako Kartel Lehiaketara aurkeztu zuen bere marrazkia eta berak lortu zuen lehenengo postua. Hain zuzen ere, biren artean aukeratu zuten Belen Agirreraren kartela. Sari moduan 180 euro emango dizkiote. Bigarren lekuan, berriz, Nahia Bailez geratu da. 100 euro emango dizkiote hari.

Orain, bai kartela baita jaietako egitaraua ere inprentan daude. Laster banatuko ditu Udalak herritarren artean.

## LABUR

### Bareako txapelketa datorren astean bukatuko da

Gaur, barikua, 18:00etan hasita, finalurreko partiduak jokatuko dituzte Bareako pilotariak. Hain zuzen ere, honako bikote hauek jokatuko dute: Raul-Ekain / Ruiz de Azua-Rioja; Balantzategi-Senar / Serrato-Aspe; Bingen-Iñaki / Manex-Markel eta Igor-Iker / Ander-Xabi. Bareako arduradun Enrike Aspek iragarritakoaren arabera, izugarriko partiduak izango dira. Eta, jakina, datorren barikuan txapelketako finalak jokatuko dituzte gaur irabazten dutenek. Era berean, Sanmartinei begira zerbait egiteko asmoa du Barea elkarteak.



**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**OSASUNA / LARRIALDIK**

Osasun etxea (txandak) .....	945 44 53 40
Botika .....	945 44 50 03
Udaletxea .....	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate) .....	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio) .....	945 45 52 52
San Martin Eskola .....	945 44 50 04
Taxia eta autobusak .....	945 44 50 33
Udal kiroldegia .....	945 44 53 35
Postetxea .....	945 44 50 83
Zuiako Eskualdea .....	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga) .....	943 78 28 00

**AUTOBUSORDUTEGIA**

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:15	07:50	08:05
	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

**OHARRA:** izartxoan duten orduetan eskaeraren araberako zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutako da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

**OHARRAK**

**ARETO FUTBOLA**

Oraingo honetan, 4-5 irabazi zion Bañerako taldeak Urgatzi taldeari joan den zapatuan, hilaren 7an. Hala, bihar, zapatua, aurtengo denboraldiko azkeneko partidua jokatuko dute Bañerakoek. 10:00etan izango da, Gasteizko Europa kiroldegian, CD Aurrera taldearen kontra. Dena dela, oporrak hartu beharrean, jaiei begira lagun arteko partiduak prestatzen dabil Bañera elkarteak. Era berean, gazte mailako taldeak datorren denboraldirako izena eman beharra dauka, eta horrekin ere badabilta. Egoera ikusita litekeena da gazte mailan aurtengo talde berak jardutea datorren denboraldian.

**UDALEKUAK**


Ekainaren 10etik 22ra udalekuak izango dira Aramaioko umeendako. 70 bat umek, zortzi begiralek eta arduradun batek (Ana Muñoa) hartuko dute parte. Iaz bezala, auzoetako umeek autobusa izango dute joan-etorria egiteko. Udalekuaren ordutegia honakoa da: 10:00etatik 13:00etara.

**KIROLA**

**Lesionatuta dago Maider Unda, baina Olinpiar Jokoetan pentsatzen dabil**

Zoritxar handia izan du Maider Unda borrokalariak aurten. Izan ere, bigarren aldiz lesionatu da. Lotailu gurutzatua hautsi du. eta Madrilen frogia mordo egin eta gero erabaki zuten ebakuntza egitea zela irtenbide bakarra. Hala adierazi digu kirolari aramaiarrak.

Hala, Aramaiora bueltatu zen, eta joan den maiatzaren 14an lehenengo ebakuntza egin zioten. Orduantxe konturatu ziren meniskoa guztiz hautsita zuela. Hala, datorren astean beste ebakuntza bat egingo diote Maider Undari. Mentua sartuko diote. Eta horren ostean, errekuperatzen hasi beharko du borroka libreko Espainiako txapeldunak. Hori bai, pazientzia handiarekin, urte osorako lana dauka-eta. Edozelan ere, nahiz eta egoera gogorra izan, animoso dabil Maider datorren denboraldiari begira. Greziako Olinpiar Jokoetan parte hartzeko sailkatzen ahaleginduko da.



**LABUR**

**Udalbatzarraren azkeneko osoko bilkura egin zuten**

Laburra izan zen udalbatzarraren azkeneko osoko bilkura. Laburra eta berezia. Izan ere, gai bakarra zuten aztergai: aurreko bilkurako akta onartzea, hain zuzen. Eta batzarra bera ere ezohiko orduan egin zuten: 08:30ean.

Kontuak kontu, batzar horrekin bukatu dute orain arteko agintaldia. Zapatutik aurrera agintaldi berriari ekingo diote.

**Azkeneko osoko bilkura egin zuten eguaztenean**

Nahiz eta orain arte erabilteko moduan egon den, atzo, eguena, inauguratu zuten kultura etxeko KZGunea.

Hortaz, hemendik aurrera, KZGunerako izena ematen dutenen artean taldeak osatuko dituzte, eta guztiendako komenigarria den ordutegia zehaztu beharko dute.



**Emakumeen arteko harremanak indartzen**

Urkabustaiztik, Legutianotik, Zuiatik, Arratzu-Ubarrundiatik eta Zigoititik emakume mordo eitorri zen Aramaiora barikuan, hilaren 6an: Zuiako Koadrilak antolatutako Emakumeen Topaketan hartu zuten parte. Ekimenarekin bat egin zuten aramaiarrak batuta, 120 bat emakume batu ziren zinema aretoan. Antolatzaileen ongietorria izan zuten han. Gero, historia egin duten emakume arabarren berri izan zuten Paloma Manzanos historialariari esker. Haren ostean, kafea eta goxoak hartu zituzten. Antzerkia ikusi zuten gero, eta 20:00etan etxerako autobusa hartu. Ekitaldi asko izan zituzten, baina batez ere emakumeen arteko harremana sendotzeko aprobetxatu zuten eguna.



**Sanjuanetan, Azkoaga jaietan**

Ekainaren 21etik 25era San Juan jaiak ospatuko dituzte Azkoagan. Auzo-afariarekin hasiko dituzte ospakizunak hilaren 21ean, 21:00etan, plazan. Euria eginez gero elizpean egingo dute. Ekainaren 23an segituko dute jaiek: afari-merienda emango dute 18:30ean plazan agertzen direnendako: sardina erreka, txorizoa eta hirugiharra. Eta iluntzean, sorgina erreko dute San Juan suan. Trikitilariak ere izango dira. Hurrengo egunean, martitzenean, 12:00etan meza izango da eta horren ostean, Lagun Artea dantza taldearen saioa. 18:00etan, mus eta briska txapelketak jokatuko dituzte, eta umeendako jolasak izango dira. Eta eguaztenean, auzoko hildakoen aldeko meza esango dute.



## ERRETRATUZAHARRA

## San Antonio egunean, Urkiolara

**H**ara zelako ohitura bitxia duten argazkiko gure lagunek: San Antonio egunean hemen ingurutik irten eta oinez Urkiolaraino joatekoa, hain justu.

Orain dela 45 urte hasi zen ohitura horrekin Garagartzako koadrila bat. San Antonio egunean (ekainaren 13an) koadrilako kideak nobio zirela Urkiolara joaten hasi ziren; oinez, orduan automobilik ez zegoen-eta. Hala, ohitura horrekin bat eginez, Arrasate-tik, eta gehienbat auzoetatik (Garagartza, Bedoña, Santa Ageda...) auzotar piloa joaten ziren. Eta orduetik gaur egunera arte urtero-urtero oinez egin dute Urkiolarainoko joan-etorria.

Berriemaileak kontatu digunez, hasieran Durangokoek antolatzen zuten San Antonio eguna, eta oso erromeria polita izaten zen. Gaur egun Abadiñokoek antolatzen dute eta festa egoten da, baina erromeriarik ez.

Hasierako urteetan Garagartza-Urkiola-Garagartza bidea egiten zuten. Aurrerago, Etxaguen-Urkiola-Etxaguen ibilbidea egiten hasi ziren. Gantzaga-



Urkiola-Gantzaga ere egin izan dute, eta azkeneko urteotan Oleta-Urkiola-Oleta bidea egin dute. Aurten, oraingo aste bukaeran egingo dute txangoa.

Goizean goiz irten beharra izaten dute Garagartzatik. Urkiolaraino 15 bat kilometroko ibilbidea dute. Guztira hiru ordu eta erditan egiten dute bidea;

eguerdi partean iristen dira, eta lehenengo meza entzutera joaten dira. Gero, txikiteoa egiten dute, eta horren ostean, Urkiolako zelaietan bazkaltzen dute, goxo-goxo.

Honako hauek agertzen dira argazkian, ezkerretik hasita: Maribi Orobengoa, Carmen Orobengoa, Luis

M<sup>a</sup> Heriz, Juan M<sup>a</sup> Biteri, Purita Otxoa, Rosita Uribarren, Carlos Gallastegi eta Jose Luis Loiti.

**Argazkia eta informazioa:**

Rosita Uribarren

**Urtea:** 1995

## NOLAALDATUDIRENGAUZAK

## Zarugalde eta Aramaio erreka

**E**zkerreko argazkian Zarugalde kaleko lehenengo etxea ikusten da, baina argazki originala askoz ere ikusgarriagoa da, bertikalki aterata dago-eta. Ondoko argazkiak horizontalak dira, eta argazki originala moztu egin behar izan dugu. Argazki hori Kondekuatik dago aterata, eta argazkian azaltzen den etxea Pascasioren etxea zen.



≈ 1920 Pascasiok ez zuen ez ikasketarik ezta lanbiderik ere. Txakurrak hazi eta saldu egiten zituen, familiari jaten emateko.



2003 Gaur egun, erdialdean, Aramaio erreka errepi-deak estaltzen du, baina, etorkizunean, estalita dauden zatiak estalgabetzeko asmoa dute.

*Lore*

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea, 10  
Tel.: 943 79 52 50

**UGARAN**  
jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel: 943 79 76 58  
ARRASATE

**AGR**  
García Ripa  
ERREFORMAK S.L.

Erakusketa eta biltegia:  
Kale txiki, 3 behe (Musakola)  
Tel eta faxa: 943 77 11 20

**Metal aroztegia eta PVC**

Leihoak eta itxierak  
**Egur aroztegia**

Leihoak  
Ateak  
Armairu enpotratuak  
Armairu-fronteak  
Mota guztietako zoruak  
Lixatua eta bernizatua

**Osagarriak**

Neurrira egindako alfonbrak  
Gortinak, mahai eta aulkiak



**"PAL"**

Burdindegia

Brikolajea

Tresneria

Uribarri etorbidea 3  
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE





# PROFESIONAL liberalak

## AHOLKULARITZA

### ASEGI AHOLKULARIAK

Otalora Lizentziatua 4. Arrasate  
Tel.: 943 71 25 49 Faxa: 943 71 17 79  
asegi@asegim.com

### ASESORIA ARRASATE

Erdiko kalea 32, 1. Arrasate  
Tel.: 943 79 01 47 Faxa: 943 79 73 00  
asesoriaarrasate@telefonica.net

### EMUN KOOP. E.

Uriburu 9, behea. Arrasate  
Tel.: 943 71 18 47 Faxa: 943 79 34 26  
emun@emun.com

### GERTU AHOLKULARIAK

Otalora 38 B. Arrasate  
Tel. 943 79 94 21 Faxa: 943 79 86 44  
gertu@conet.es

## ETXE ADMINISTRAZIOAK

### URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

Otalora 16, solairuartea, esk. Arrasate  
Tel.: 943 79 51 25 Faxa: 943 71 19 85  
uribesalgoe@euskalnet.net

## ABOKATUAK

### LIA ALTUNA BEGOÑA LASAGABASTER

Iturriotz 15, 1 A. Arrasate  
Tel.: 943 79 98 86 Faxa: 943 77 01 08  
altu-lasa@conet.es

## APAREJADOREAK

### JUAN MARI OSINAGA

Zerkaosteta 17 behea  
Tel.: 943 79 67 78/ Faxa: 943 77 10 09  
zutarri@infonegocio.com





**A**lkatere berriari:  
Ez zitzaidan berehalakoan burutik pasako gisa honetako gutun bat idatzi beharko niokeenik neure herriko alkate berriari.  
Are eta gutxiago, halako zirkunstantzian; baina, tira!, hamaika ikusteko jaio omen gara eta...

Gutun hau idaztera bizi dugun egoera honek narama.  
Eta burutapenok iritsi ahala hustuko dizkizut orrira, idazlan ordenatu bat egin baino gehiago.

Udal eta Batzar Nagusietarako hauteskunde kanpaina bukatu da. Halere, izenburuaz aparte, iruditzen zait ezer gutxi izan dutela izenburuarekin beraien edukietan. Erabat politika orokorreko gaietan oinarritu baita, nagusiki, Estatu espainolak Euskal Herriari deklaratu dion gerra hotsak izanik nagusi.  
Onartuko duzu kanpaina luze (urtebete, gutxienez) honetako gertakizunik aipagarrienak, nahiz eta ez beti komunikabideetan aipatuena, Euskal Herriaren Eskubide nazionalak aldarrikatu dituen Ezker Abertzalearen aurkako erasoak izan direla; ondorioz, Estatu espainolak bere legalitatez kanpo utzi du Euskal Herriko giza sektore garrantzitsuenetarikoa bat.

Eta horiek horrela, hauteskundeak.  
Arrasaten, zehazki,  
- aurreko Udal Hauteskundeetan, emandako botoen %38 eskuratu,  
- azken lau Udal Hauteskundeak irabazi,  
- alkatetzari eutsi eta  
- Udaletxe honetan Gobernu arduraren nagusia izan duen aukera politikoa joko zelaitik kanporatua izan da, arbitro prebikarizazioaren baten erabakiz.  
Baina zuek jokoan jarraitu duzue, "kiroltasunez".  
Eta gainera, denok diozue (matematika gaixoak!!) aurreko emaitzak hobetu dituzuela.  
Hori trebetasuna duzue!! Itzela lorpena!!  
Xanpaina eta guzti topa egiteko gogoia gainera !! Bejondeizula.

Egungo legalitatea errespetatu behar omen duzue. Frankoren oinordekoek ezarri digutena. Amina Lawal ere bere herritarrek egindako lan (ez-legezkoak?) eta nazioarteko presioak libratu dute, (behin-behinean behintzat) legez, ezarri zioten lapidaziotik.

Esaten genuen ba, kanpaina zehar... 2003 urtearen ondoren, 2004 tokatzen zela, ez 1975. Baina beldur naiz atzerakada hori gutxienez joarazi dizuetela. Hobeto esan, onartu egin duzuela.  
Eskerrak, Estatu espainolek at, egutegiak aurreraka kontatzen jarraituko duen eta 2004an ez bada, 2005ean edo 2006an edo... dagokigun lekuan kokatu ahal izango gara.  
Esperantzari leiho bat...  
Kontua da nola kontabilizatu behar nahi edo ahal diren gure botoak. Besteenez bezala balio dute? Edo doblea? Ala batere ez?. Era formalago baten esateko: guk (hauteskundeetan) baldintza hauetan parte hartu eta gero... ("ilegalizatuta!!", Ertzaintzaren, Guardia Zibilaren eta Polizia Nazional espainolaren "laguntza eskergaz", medioetan ukatuak, egoitzak itxita, gure militanteak (eta hautagaiak ere) kartzelaratuak, hautes mahaietatik kanporatuak, gure boto aukerak ezabatuta...), zein balio eman behar diezu lortu ditugun botoei?. Eta gure aukera baztertuta, hoberik ezean, besteoi joan zaizkizuen botoei?

Alkate guztiek esan ohi dute, eta hala egiten saiatu behar dira, "denon alkate" direla; baina nola izan, ordea, berdintasunean esku hartzen utzi ez dieten hiritar batzuen alkate?. Zail xamarra ikusten dut, egia esan. Ez zait horretarako formula (demokratikorik) bururatzen.

Era oso ausartean ez baina, zure agerpenetan ulertarazi bezala egin diguzu bidegabeke-ria hau konpontzeko edo guk lortu ditugun botoak ere nolabait ordezkatuak izan daite-

zen, formularen bat aurkitu beharko dela  
"Habr  que idear alg n mecanismo para recoger las voces silenciadas".  
Emango dizut, neure iritzia horri buruz; lehenik eta behin, ez dira "voces", botoak bai-zik isilarazi, eta aukera gabe utzi dituztenak-(dituzuenak).  
Gure ahotsa oraingoz kontserbatzen dugu.

Mekanismoa, ordea, hauteskundeak berriro ospatzea litzateke, denontzako berdina izango liratekeen baldintzetan; beste guztia behin-behineko konponketa bat izan daiteke, agian; besterik ez.  
Baina, zer egingo diogu ba!!, ez da hala? Autonomi Estatutuak ez du gehiagotarako ematen eta...

Herriari lotuta halere, azpimarratu beharra daukat, Ezker Abertzalekoa kenduz, ez dula ikusi udal programa bezala ezagutua izan daitekeen proposamenik.

Zuzenki ez bada zeharka, orain arte ezer egin ez edo dena gaizki egin izan balitz bezala, "Nuevo Proyecto-Proiektu Berria" omen duzu Arrasaterako.  
Gogora ezazu (aurretik ere, noski), baina, 1987az geroztik, Arrasateko Udaletxean PNV alderdia udal gobernuan egon dela edota egoteko aukera izan duela; eta orain, bat-batean, proiektu berri bat?  
Hasteko, elebitasuna agintzen badiguzu ere; oraingoz, zure adierazpen ia guztiak gazte-lera sakrosantuan egin dizkiguzu. Jarraituz, misterioitsu behintzat bada zure proiektu hori; izan ere, arrasatearrek ezin izan dute eskuratu sikiera bere laburpen txiki bat ere. Bildu dituzun botoak seguru nago ez dela izan proiektuak konbentzitu dituelako.

Gehiago kezkatzen nau zure azalpen apurretatik ondorioztatzen den beste kontu batek. "Gobierno municipal y Gestion municipal" edota "esfera pol tica" eta "esfera ejecutiva" bereizi behar omen dituzu eta gestore publikoei, (langile kualifikatuak agian?), "importantes responsabilidades" eman. Harrigarria eta kontrajarria; izan ere, zuen zerrendako baten ahotik sarri entzun dut udaletxe honetan teknikoak "agintzen" omen dutela. Dena den, zer uste duzu, orain arte ez dutela erantzukizunik izan? Zeinek esan dizu zuri Arrasateko Udaletxeko langileek ez dutenik profesionaltasunik eta ez diren "efizientek"? ("eragingorrak").

Eta 21 zinegotzi "liderazgo pol tico" egitera dedikatu behar zarete?. Lider askotxo ez al dira?. Nik esango nuke zinegotzietan eguneroko lana dagokiela gehiago, kalea zapaltzea, herritarrekin harremanetan; ("Herriarekin herriarentzat", ikusi dut EA-koen kanpaina). Ez al da izango lanerako borondate gutxi dagoela zuen zerrendako askoren artean?. "Campa a inmobiliaria" baten itxura hartu omen diozu kanpaina honi eta ez omen zaizu serioa iruditu. Neurri baten arrazoi duzu, baina zeuen kanpaina izan al da ba serioa? Irakurri duzu Herri Anitzaren programa? Apustu egiten dizut, han agertzen diren gai askoren inguruan hitz eta lan egin beharko dela datozen urteetan. Proiektu Zaharretik datozen arren.

Ohartuko zinen gutunean zehar, batzuetan, zuri eta bestetan zuei zuzendu natzazu(e)la; izan ere, ez nekien oso ondo nola egin; badakizu independente izate horrek nahastu egiten nau pittin bat, ohitura egon beharko nukeen arren; izan ere, Ardanza, Arregi eta Loiti jaunak ere independenteak omen ziren eta...

Dena den, hauteskunde egunetik astebete luze pasa eta gero, oraindik ez dugu jaso zure deirik ere; egoera honi aurre egiteko behar izango dugun mekanismoa zailagoa izango da aurkitzea, baina harremanetan jartzeko daudenak ez dira hain konplikatuak.

Betiko lekutik, nahi duzun arte.

**Xabier Zubizarreta**  
(Arrasateko alkate eta Herri Anitza Plataformako zerrendaburua)

